# Estadística de Servicios Socilaes

## Análisis de resultados

# Gizarte-zerbitzuen estatistika

## Emaitzen analisia

Eustat

1998

## PRESENTACIÓN GENERAL. PERIODO 89-98

Según los datos que se ofrecen en la presente estadística de los servicios sociales de la C.A. de Euskadi, correspondientes a los años 97-98, el sector mantiene estable su participación en el conjunto de la economía, en torno al 1,7% del PIB, frente a un 1,3% en 1989 o un 1,9% en 1993.

El crecimiento nominal, esto es, en pesetas corrientes, del gasto corriente en el citado periodo ha sido del 155,8%, y del 106,6% el de las transferencias directas a las familias, frente a un crecimiento del 83,3% registrado en el conjunto de la economía.

Esto se puede comprobar en cada una de las variables sobre gastos e ingresos corrientes y personal, que se adjuntan en el cuadro resumen del sector para el periodo 1989-1998. A la hora de observar la evolución del sector hay que tener en cuenta la eliminación en el año 1995 de las guarderías, que dejaron de ser consideradas como servicios sociales por criterios metodológicos.

## AURKEZPEN OROKORRA. 89-98 ALDIA

Euskal AEko gizarte-zerbitzuen estatistika honetan eskaintzen diren datuen arabera, 97-98 urteei dagozkien datuen arabera, egonkor iraun du sektore horrek ekonomia osoan duen parte-hartzea, BPGaren % 1,7 inguruan; 1989an, aldiz, % 1,3koa zen, eta 1993an, % 1,9koa.

Gastu arruntaren hazkunde nominala, hau da, pezeta arruntetan neurtua, % 155,8koa izan da aldi horretan; familietarako zuzeneko transferentziena, berriz, % 106,6koa; ekonomia osoan, berriz, hazkundea % 83,3koa izan da.

Hori egiazta daiteke gastu eta sarrera arruntei eta langileei buruz erantsita doan laburpen-taulako aldagai bakoitzean; taula hori sektore horri eta 1989-1998 aldiari buruzkoa da. Sektorearen bilakaera aztertzerakoan, kontuan izan behar da 1995ean haurtzaindegiak ezabatu zirela, metodologi irizpideak zirela eta, gizarte-zerbitzuen sektoretik kanpo geratu baitziren.

| | 1989 | 1997 | 1998 | **Aldakuntza-tasa (98/89)** Tasa de variación | **Aldakuntza-tasa (98/97)** Tasa de variación |
|---|---|---|---|---|---|
| **(Miloi pezeta arruntetan)** / (mill. ptas corrientes) | | | | | |
| **Gastuak guztira** / Gasto total | **39.023** | **85.544** | **93.620** | **139,9** | **9,4** |
| **Gastu arruntak** / Gastos corrientes | 26.747 | 63.360 | 68.430 | 155,8 | 8,0 |
| **Ordainsariak** / Retribuciones | 16.416 | 35.547 | 37.964 | 131,3 | 6,8 |
| **Bestelakoak** / Otros corrientes | 10.331 | 27.813 | 30.466 | 194,9 | 9,5 |
| **Familietarako transferentziak** Transferencias a familias | 10.452 | 19.910 | 21.597 | 106,6 | 8,5 |
| **Kapital-gastuak** / Gastos de capital | 1.824 | 2.274 | 3.594 | 97,0 | 58,0 |
| **Izakunde eta zentro publikoetako gastuak** Gasto en entidades y centros públicos | 23.703 | 53.941 | 59.718 | 151,9 | 10,7 |
| **Izakunde eta zentro pribatuetako gastuak** Gasto en entidades y centros privados | 15.320 | 31.604 | 33.902 | 121,3 | 7,3 |
| **Finantzaketa publikoa** / Financiación pública | 27.813 | 60.769 | 65.533 | 135,6 | 7,8 |
| **Finantzaketa pribatua** / Financiación privada | 11.211 | 24.776 | 28.088 | 150,5 | 13,4 |
| **Biztanleko gastua (PTA)** Gasto por habitante (ptas.) | 18.446 | 39.897 | 44.479 | 141,1 | 11,5 |
| **GIZA BALIABIDEAK** / RECURSOS HUMANOS: | 13.527 | 22.971 | 26.218 | 93,8 | 14,1 |
| **Bertako langileak** / Personal propio | 7.792 | 12.195 | 13.004 | 66,9 | 6,6 |
| **Bertako langileak (DOB)** / Personal propio (E.D.P) | 7.355 | 11.426 | 12.093 | 64,4 | 5,8 |
| **Borondatezkoak** / Voluntariado | 5.735 | 10.776 | 13.214 | 130,4 | 22,6 |
| **BALIABIDE MATERIALAK** RECURSOS MATERIALES: | | | | | |
| **Izakunde-kopurua** / Número de entidades | 738 | 990 | 1.037 | 40,5 | 4,7 |
| **Zentro-kopurua** / Número de centros | 1.222 | 1.782 | 1.924 | 57,4 | 8,0 |
| **Egoitza-kopurua** / Número de residencias | 296 | 423 | 508 | 71,6 | 20,1 |
| **Barruko platzak** / Plazas residenciales | 12.329 | 13.487 | 14.675 | 19,0 | 8,8 |
| **GASTUA TIPOLOGIAREN ARABERA** GASTO SEGÚN TIPOLOGÍA: | | | | | |
| **Biztanleria osoa** / Población general | 17.584 | 32.883 | 34.837 | 98,1 | 5,9 |
| **Familietarako transferentziak** Transferencias a familias | 10.118 | 19.910 | 21.597 | 113,5 | 8,5 |
| **Haur-Gazteak (1)** / Infancia-Juventud (1) | 3.866 | 2.967 | 3.162 | -18,2 | 6,6 |
| **Egoitzak /** Residencias | 1.439 | 2.466 | 2.478 | 72,2 | 0,5 |
| **Zaharrak /** Ancianos | 10.594 | 25.084 | 28.237 | 166,5 | 12,6 |
| **Egoitzak /** Residencias | 9.264 | 21.959 | 24.942 | 169,2 | 13,6 |
| **Elbarriak /** Minusválidos | 5.866 | 20.239 | 22.596 | 285,2 | 11,6 |
| **Egoitzak /** Residencias | 1.442 | 4.464 | 4.725 | 227,7 | 5,8 |
| **Lanbide-zentroak eta EZB (2)** Centros Ocupacionales y C.E.E (2) | 2.975 | 11.865 | 13.332 | 348,1 | 12,4 |
| **Emakumeak /** Mujer | 138 | 344 | 384 | 178,3 | 11,6 |
| **Zokoratuak /** Marginados | 976 | 4.027 | 4.403 | 351,1 | 9,3 |
| **BPG (milioi pezeta arruntetan)** PIB (Mill. ptas corrientes) | 3.054.694 | 5.128.569 | 5.600.404 | 83,3 | 9,2 |
| **% BPG (milioi pezeta arruntetan) (3)** % PIB (Mill. ptas corrientes) (3) | 1,3 | 1,7 | 1,7 | 30,9 | 0,2 |

**(1) 1989. urteko datu orokorrek gizarte-zerbitzutzat hartzen dituzte haurtzaindegiak; 1995. urtean, metodologi irizpide bat zela eta, gizarte-zerbitzu izateari uzten diote, haurtzaindegiek 2.306 milioi pezeta unekoko gastua izan dute. Kopuru hori kentzen bada, 98/99ko aldakuntza-tasa % 102,7an geratuko litzateke haur-gazteak atalean**.
Los datos generales del año 1989 incluyen las guarderías como servicio social, en el año 1995 por criterio metodológico dejan de ser consideradas como ta, con un gasto de 2.306 millones de ptas. corrientes. Si se reduce dicha cantidad, la tasa de variación 98/99 en Infancia-Juventud quedaría en 102,7 %.

**(2) Enplegu-zentro bereziak** / Centros especiales de empleo.

**(3) Gizarte-zerbitzuetako gastuak BPGaren portzentaia gisa** / Gasto total en Servicios Sociales como porcentaje del P.I.B.

Evolución del gasto por habitante en Servicios Sociales. (pesetas) Gráfico 1 Grafikoa **Gizarte-zerbitzuetako biztanleko gastuaren bilakaera . (PTA)**




Evolución del gasto en Servicios Sociales. (Millones pesetas) Gráfico 2 Grafikoa **Gizarte-zerbitzuetako gastuaren bilakaera. (milioi PTA)**



# 1. RESUMEN DEL CONJUNTO DE ENTIDADES Y CENTROS

## 1.1. Características y Tipología de las Entidades y Centros

Los Servicios Sociales en la Comunidad Autónoma de Euskadi se organizaron en el año 1998 alrededor de 1.037 entidades. Estas se distribuyen según su titularidad jurídica en 306 (30%) públicas y 731 (70%) de carácter privado. Territorialmente, el 20% pertenecen al territorio de Álava, el 51% a Bizkaia y el restante 29% a Gipuzkoa.

Dichas entidades de servicios sociales gestionan los 1.924 centros, desde los que se instrumentaron las prestaciones sociales. Estos centros se ditribuyen según su titularidad jurídica de la siguiente forma, 817 (42%) de carácter público y 1.107 (58%) privados, y en cuanto a su ubicación, de 409 en Álava (21%), 915 en Bizkaia (48%) y 600 en Gipuzkoa (31%).

Existen dos tipos de centros ampliamente distribuidos por la mayoría de municipios de la C.A. de Euskadi; son en primer lugar los Servicios Técnicos Generales o Unidades de Base, forman la red básica de atención social y son la puerta que facilita el acceso del ciudadano a los servicios sociales especializados y prestaciones sociales; en segundo lugar, los Hogares-Club de Jubilados y sus respectivas asociaciones. El resto de los centros tienden a concentrarse en las poblaciones más importantes en una proporción muy similar a la distribución poblacional. El factor capitalidad es más acentuado en Álava, con una concentración del 60% del total de centros en Vitoria-Gasteiz. Un alto grado de concentración de los servicios sociales se obtendría en Bizkaia añadiendo al 34% de centros situados en la capital, los ubicados en los municipios del Area del gran Bilbao (67%). El modelo guipuzcoano es más disperso con el 29% de centros situados en la capital y el 47% en la comarca de Donostia-San Sebastian.

En cuanto a la tipología de las entidades, existen grandes diferencias; por un lado las "macroentidades", pocas en número, entre el 1-5%, según la variable utilizada, con alto grado de concentración de recursos. En el extremo contrario, las "microentidades"; muy numerosas, en torno al 80%, no llegan a explicar el 20% de los recursos consumidos. Esta realidad se entiende facilmente si tenemos en cuenta la importancia del asociacionismo (asociaciones de jubilados, de personas con minusvalias, etc.) y la creciente presencia de empresas que gestionan una residencia de ancianos, en cuanto al sector privado, y la corresponsabilidad de los ayuntamientos en los servicios sociales, independientemente de su población, así como fundaciones públicas, creadas normalmente para gestionar residencias de ancianos, en el sector público.

Así podemos observar que la gran mayoría de las Entidades que actúan en el campo de los Servicios Sociales son unicelulares (80%), es decir, que instrumentalizan sus servicios a través de un único centro. Solamente un 5% de las entidades cuenta con una red de

# 1. IZAKUNDE ETA ZENTRO GUZTIEN LABURPENA

## 1.1. Izakundeen eta zentroen ezaugarriak eta tipologia

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuak 1.037 izakunderen inguruan egituratu ziren 1998an. Izakunde horiek, titulartasun juridikoaren arabera, honela banatzen dira: 306 publiko (% 30) eta 731 pribatu (% 70). Herrialdez herrialde, % 20 Arabakoak dira, % 51 Bizkaikoak, eta gainerako % 29, Gipuzkoakoak.

Gizarte-zerbitzuetako izakunde horiek 1.924 zentro kudeatzen dituzte, eta horien bidez gizarte-zerbitzuak eskaintzen dira. Zentro horiek honela banatzen dira titulartasun juridikoaren arabera: 817 (% 42) publiko eta 1.107 (% 58) pribatu; eta kokapenari dagokionez, 409 Araban (% 21), 915 Bizkaian (% 48) eta 600 (% 31) Gipuzkoan.

Era bitako zentroak daude, Euskal AEko udalerri gehienetan modu oso zabalean banatzen direnak: alde batetik, zerbitzu tekniko nagusiak edo oinarrizko unitateak daude, hau da, gizarte-laguntzako oinarrizko sarea, herritarrei gizarte-zerbitzu eta espezializatuetara eta gizarte-zerbitzuetarako sarbidea eskaintzen dien atea; bigarren tokian, erretiratuen etxe-klubak eta haiei dagozkien elkarteak. Gainerako zentroak herririk handienetan kontzentratzen dira, biztanle-banaketaren antzeko proportzio batean. Hiriburutza-faktorea nabarmenagoa da Araban, zentro guztien % 60 Vitoria-Gasteizen biltzen baita. Bizkaian ere kontzentrazio-maila handia lortuko genuke, hiriburuan kokatutako zentroei (% 34) Bilbo Handiko eskualdeko udalerrietan kokatutakoak (% 67) erantsiko bagenizkie. Gipuzkoako eredua sakabanatuagoa da, eta zentroen % 29 hiriburuan kokatuta daude eta % 47 Donostialdean.

Izakundeen tipologiari dagokionez, alde handiak daude: alde batetik, "makroizakundeak", kopuruz gutxi, % 1-5 artean, erabilitako aldagaiaren arabera, eta baliabide--kontzentrazio maila handiarekin. Beste muturrean, "mikroizakundeak", oso ugariak, % 80 inguru, baina ez dituzte azaltzen kontsumitutako baliabideen % 20. Errealitate hori erraz ulertzen da, asoziazionismoaren garrantzia kontuan hartzen badugu (erretiratu-elkarteak, gaixotasun minusbaliatzaileak dituztenen elkarteak, etab.) eta zahar-egoitzak kudeatzen dituzten enpresen gero eta presentzia handiagoa, sektore pribatuari dagokionez, eta udalek gizarte-zerbitzuetan duten erantzunkidetasuna, herritar-kopurua alde batera utzita, bai eta fundazio publikoak ere, normalean zahar-egoitzak kudeatzeko sortuak, sektore publikoan.

Horrela ikus dezakegu, gizarte-zerbitzuen esparruan diharduten izakundeen artean, gehienak zelula bakarrekoak direla (% 80), hau da, zentro bakar baten bidez eskaintzen dituzte zerbitzuak. Izakundeen % 5 bakarrik baliatzen da bost zentroz gorako sare batez; dena dela,

más de cinco centros, concentrando sin embargo el 54% del gasto total del sistema. En este pequeño grupo se encuentran las redes de las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos de las ciudades más populosas de la Comunidad.

izakunde horiek sistemari dagokion gastu guztiaren % 54 biltzen dute. Multzo txiki horretan, foru-aldundien eta gure erkidegoko hiririk jendetsuenetako udalen sareak daude.

Atendiendo al número de trabajadores, las entidades cuentan, de nuevo mayoritariamente (72%), con una plantilla inferior a 5 personas; un pequeño grupo de 14 entidades (1%) con más de 100 empleados concentran el 52% del personal empleado y el 57% del gasto total del sistema.

Langile-kopuruari dagokionez, izakunde gehienek (% 72), kasu honetan ere, 5 lagunez beherako plantillak dituzte; 100 langilez gorako 14 izakundez (% 1) osatutako beste talde txiki bat ere badago. Azken horiek landun-kopuruaren % 52 eta sistemaren guztizko gastuaren % 57 biltzen dute.

En términos económicos, el 53% de las entidades registran un gasto inferior a 5 millones de pesetas representando el 1% del gasto total; concentrándose en 13 (1%) entidades, con un nivel de gasto superior a 1.000 millones, más de la mitad del gasto total del sistema (60%). Esta concentración alcanza su máximo en Alava, donde el 1% de entidades, todas ellas públicas, significan el 76% del gasto total y su mínimo en Gipuzkoa donde el 2% de entidades realizan el 55% del gasto total.

Diruaren aldetik, izakundeen % 53k 5 milioi pezetaz beherako gastua hartzen du; 1.000 milioiz gorako gastumailan, 13 (% 1) izakunde daude, hots, sistemaren gastu osoaren erdia baino gehiago (% 60). Pilatze horrek Araban lortzen du kopuru handiena, izakundeen % 1ek (guztiak publikoak) guztizko gastuaren % 76 lortzen baitute; kopuru txikiena, berriz, Gipuzkoan, izakundeen % 55ek guztizko gastuaren % 2 egiten baitute.

Centros, según tipo de población (% 1998) Gráfico **3 Grafikoa** **Zentroak, biztanleri motaren arabera (% 1998)**




En función del tipo de población atendida, el 44% de los centros se sitúan en el sector de la ancianidad, el 20% se destina a minusválidos y el 16% se dirige a población en general; se incluyen en este epígrafe las unidades de base municipales y centros de prevención de drogodependencias. Los demás sectores de población infancia-juventud, mujer y marginación agrupan el 20% restante.

Zaindutako biztanleri motaren arabera, zentroen % 44 zaharren arloan kokatzen dira; % 20 elbarrien atentzioirako erabiltzen da, eta % 16 biztanleria osoari zuzentzen zaio. Atal horretan udalen oinarrizko unitateak eta drogamendetasunen prebentziorako zentroak. Gizarteko gainerako arloak (haur-gazteak, emakumeak eta zokoratuak) gainerako % 20 pilatzen dute.

Centros, según tipo de centro (% 1998) Gráfico **4 Grafikoa** **Zentroak, biztanleri motaren arabera (% 1998)**




La tipología de los centros estudiados es muy amplia. Los grupos más importantes, numéricamente hablando, corresponden a 508 centros residenciales, 447 centros de día, 372 asociaciones que agrupan a colectivos con una problemática común, 323 centros de servicios técnicos generales y sociales comunitarios y 123 centros ocupacionales y especiales de empleo.

### 1.2. Personal de Entidades y Centros

El sector de los servicios sociales da trabajo directo a un total de 13.004 personas en nuestra Comunidad, de las cuales 8.611 (66%) son mujeres. En términos relativos, significa que 14 de cada mil activos trabaja en el sector, cifra que se eleva a 23 mujeres de cada mil activas, siendo el máximo en Alava que alcanza el 19 de cada 1000 activos.

La labor realizada por este colectivo se ve complementada por un total de 13.214 personas que trabajan en el sector de forma voluntaria y sin remuneración, principalmente en las entidades y centros de carácter privado (99%). No se incluye el personal subcontratado cuya presencia tiende a aumentar en el sector, siendo especialmente importante en la prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio, subcontratado por la administración pública, que agrupa a 1.562 trabajadores.

El personal calculado en equivalencia a dedicación plena (EDP) es de 12.093 con una reducción del 7% sobre la cifra total de personas que trabajan en el sector. El personal a dedicación parcial incide en mayor medida en el grupo de centros del tipo Servicios Técnicos Generales (unidades de base municipales, etc.), donde la cifra de personal EDP es un 27% inferior al de personas físicas ocupadas, y centros de día 19%.

Aztertutako zentroen tipologia oso zabala da. Kopuruz, talde nagusiak honako hauek dira: 508 egoitza-zentroak; 447, eguneko zentroak; antzeko arazoak dituzten kolektiboak biltzen dituzten 372 elkarteak, 323 zerbitzu tekniko orokorrak eta erkidegoko gizarte-zentroak, eta 123 lanbide-zentro eta enplegu-zentro bereziak.

### 1.2. Izakundeetako eta zentroetako langileak

Gure autonomia-erkidegoan, gizarte-zerbitzuen arloak guztira 13.004 laguni ematen die zuzeneko lana, eta, horien artetik, 8.611 (% 66) emakumeak dira. Kopuru erlatibotan, horrek esan nahi du mila aktiboko 14k sektore horretan lan egiten dutela; zenbaki hori mila aktiboko 23ra igotzen da emakumeetan. Araba da maximoa, 1.000 aktiboko 19ra iristen baita.

Talde horrek burututako lanari, bestalde, borondatez eta ordainsaririk gabe arlo horretan lan egiten ari den beste talde bat erantsi behar zaio (13.214), batez ere izakunde eta zentro pribatuetan (% 99). Ez ditugu sartu langile subkontratatuak, nahiz eta gero eta gehiago izan arlo honetan; etxeko laguntzako zerbitzuan, esaterako, bereziki garrantzitsua da, 1.562 langiletik gora biltzen ditu herri-administrazioak subkontratatutako atal horrek.

Langile-kopurua dedikazio osoko baliokidetzaren (DOB) arabera kalkulatzen badugu, kopuru hori 12.093koa da, eta % 7 jaitsi da, arlo honetan lan egiten duten pertsonei dagokien guztizko kopuruaren aldean. Egun-zatiko dedikazioa duten langileak, batez ere, zerbitzu nagusiak bezalako zentroetan (udaletako oinarrizko unitateak, etab.) ari dira; izan ere, DOB langileen kopurua, pertsona fisiko landun eta zentroen aldean (%19), % 27 txikiagoa baita.

Personal propio, según función (% 1998)

Gráfico 5 **Grafikoa**

**Bertako langileak, jardueraren arabera (% 1998)**




Si atendemos a la clasificación del personal propio según su función, el grupo mayoritario es el personal especializado de atención directa (45%) y, dentro de este grupo, el personal sanitario (médicos, A.T.S., auxiliares de clínica, fisioterapeutas, etc.) destaca sobre el resto con un 19% del total de trabajadores.

Muy importante es la presencia de los trabajadores-usuarios de los centros especiales de empleo, también denominadas empresas de trabajo protegido, que surgieron al amparo de la L.I.S.M.I. y cuya finalidad es la integración social de minusválidos a través del trabajo; por ello los incorporamos en esta categoría especial, diferenciada del resto de trabajadores, al ser según finalidad del centro los usuarios directos, pero por las características de empresa son al mismo tiempo trabajadores remunerados; este grupo, con 3.664 trabajadores, supone el 28% del personal empleado.

Por último, hay que mencionar a los 1.695 (13%) trabajadores de dirección y administración y los 1.787 (14%) de servicios de mantenimiento, hostelería y limpieza.

Respecto al año anterior todas las categorías han visto elevados su número de trabajadores excepto la referida al personal de servicios, que sufre un ligero retroceso: 1.830 trabajadores empleados en 1997 y 1.787 en 1998, posiblemente por agrupar puestos de trabajo en los que es frecuente la subcontratación del servicio.

Atendiendo a la titularidad de los centros donde este grupo de trabajadores realiza sus funciones, el 40% lo hace en centros y entidades públicas y el restante 60 % en la red privada. La distribución del personal propio territorialmente es de un 20% en Álava, 43% en Bizkaia y 37% en Gipuzkoa.

Esta diferencia entre el sector público y privado está marcada por la presencia mayoritaria de los trabajadores-

Bertako langileak eginkizunaren arabera sailkatuz gero, talderik handiena zuzeneko arretako langile espezializatuena da (% 45), eta, talde horren barruan, osasun-langileena (medikuak, OLT, klinika-laguntzaileak, fisioterapeutak, etab.) nagusitzen da besteen aldean, langileen guztizkoaren % 19rekin.

Garrantzi handikoa da langile-erabiltzaileen presentzia enplegu-zentro berezietan, lan babestuko enpresak direlakoetan. Enpresa horiek EGLren (Elbarriak Gizarteratzeko Legearen) babesean sortu ziren, eta haien xedea elbarriak lanaren bidez gizarteratzea da; hori dela eta, atal berezi honetan sartu ditugu, gainerako langileetatik bereizia. Izan ere, zentroaren xedearen arabera, erabiltzaile zuzenak dira, baina, enpresaren ezaugarriak direla eta, langile ordainduak dira aldi berean. Talde horrek 3.664 langile ditu, eta langile enplegatuen % 28 hartzen du.

Azkenik, honako hauek aipatu behar dira: 1.695 langile (% 13) zuzendaritzan eta administrazioan, eta 1.787 (% 14) mantentze-, ostalaritza- eta garbiketa-zerbitzuetan.

Aurreko urtearen aldean, langile-kopuruak gora egin du maila guztietan, zerbitzuetako langileetan izan ezik, haiek atzerakada txiki bat izan baitute: 1.830 langile enplegudun 1997an, eta 1.787 1998an; ziurrenik enpleguaren subkontratatzea ohikoa den lanpostuak taldekatzeagatik.

Langile-talde hori, jarduera burutzen duen zentroen titulartasunaren arabera, honela banatzen da: % 40k zentro eta izakunde publikoetan egiten du lan, eta gainerako % 60k, sare pribatuan. Bertako langileen banaketa, herrialdez herrialde, honako hau : % 20 Araban, % 43 Bizkaian eta % 37 Gipuzkoan.

Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko alde hori honek zehazten du: enplegu-zentro berezietako langile-

usuarios de centros especiales de empleo en el sector privado, de forma que, si hipotéticamente se prescinde de dicha categoría de trabajadores, la distribución del personal quedaría de la siguiente forma, 48% en el sector público y 52% en el sector privado; y la distribución territorial resultante: 21% en Alava, 51% en Bizkaia y 28% en Gipuzkoa, sería más acorde con la distribución de los centros ya estudiada.

-erabiltzaileen presentzia handiak sektore pribatuan. Izan ere, hipotetikoki langile-maila hori ezabatzen bada, langileen banaketa honela geratuko litzateke: % 48 sektore publikoan eta % 52 sektore pribatuan. Herrialdekako banaketa, berriz, honako hau izango litzateke: % 21 Araban, % 51 Bizkaian eta % 28 Gipuzkoan. Banaketa hori batago letorke arestian aztertu dugun zentro-banaketarekin.

Personal propio, según tipo de población (% 1998) Gráfico **6** **Grafikoa** **Bertako langileak, biztanleri motaren arabera (% 1998)**




Los trabajadores, según el tipo de población atendida, se distribuyen de la manera siguiente: 5.967 (46%) en la atención de la población minusválida, de los cuales 2.312 (18%) prestan atención asistencial y 3.664 (28%) son tra-

Langileak, zaindutako biztanleri motaren arabera, honela banatzen dira: 5.967 (% 46) elbarrien ardura-lanetan -horietatik 2.312k (% 18) osasun-laguntza ematen dute eta 3.664 (% 28) EZBetako langile-erabiltzaileak dira-,

Personal propio, según tipo de centro (% 1998) Gráfico **7** **Grafikoa** **Bertako langileak, zentro-motaren arabera (% 1998)**



bajadores-usuarios de CEE, 4.383 (34%) en ancianidad, 1.411 (11%) en centros de atención a la población en general y las demás poblaciones atendidas significan en conjunto el 9% del personal.

4.383 (% 34) zaharrekin, 1.411 biztanleria osoa atenditzeko zentroetan, eta gainerako biztanleria zainduek langileen % 9 hartzen dute.

En cuanto a la clasificación según el tipo de centro donde realizan sus trabajos, el personal se asigna mayoritariamente a las residencias (43%) y a centros ocupacionales y especiales de empleo (34%) . Por el contrario, centros de día, asociaciones y otros centros no clasificados, a pesar de representar el 50% de los centros, únicamente emplean el 10% del personal; sin embargo, concentran el 86% del voluntariado.

Langileak lan egiten duten zentro-motaren arabera, honela sailkatuko ditugu: gehienak % 43 egoitzetan ari dira, % 34 lanbide-zentroetan eta enplegu-zentro berezietan. Aldiz, beste taldeak (eguneko zentroak, elkarteak eta beste zentro sailkatu gabe batzuk), nahiz eta zentroen % 50 hartzen duen, langileen % 10 baino ez du enplegatzen, baina boluntarioen % 86 pilatzen du.

### 1.3. Gasto de Entidades y Centros

La atención del Sistema de Servicios en la C. A. de Euskadi requirió en 1998 un esfuerzo económico cifrado en 93.620 millones de pesetas, que se divide en tres partidas; 68.430 millones de pesetas de gasto corriente (73%) destinado a sufragar la prestación de servicios; de este gasto corriente, 37.964 millones de pesetas son destinados a gasto de personal (55% ).

Los diversos programas de transferencias a familias alcanzan la cifra de 21.597 millones de pesetas (23%); en este epígrafe se incluyen principalmente los fondos destinados a financiar el Plan de Lucha contra la Pobreza (Ayudas de Emergencia Social y Salario Mínimo de Inserción), las prestaciones de la ley de Integración Social de Minusválidos (LISMI) y los Fondos de Bienestar Social dirigidos a personas que por su edad o incapacidad no pueden acceder al trabajo ni disponen de otros ingresos con que atender sus necesidades básicas; finalmente 3.594 millones son destinados a inversión (4%).

### 1.3. Izakundeen eta zentroen gastua

Gizarte-zerbitzuen sistemaren beharrei erantzuteak, gure autonomia erkidegoan, 93.620 milioi pezetako ahalegin ekonomikoa eskatu zuen. Gastu-kopuru hori hiru ataletan dago banatuta: 68.430 gastu arruntean (% 73), hau da, zerbitzuen gastuak ordaintzeko, eta horietatik 37.964 milioi pezeta, langileen gastuak ordaintzeko (% 55).

Familietarako transferentzia-programak 21.597 milioi pezetara iritsi dira (% 23). Azkeneko atal horretan sartzen dira, besteak beste, pobreziaren aurkako borroka-plana finantzatzeko funtsak (Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak eta Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerak), Elbarriak Gizarteratzeko Legearen laguntzak (EGL) eta Gizarte-Ongizaterako Funtsak, hots, adina edo ezintasuna dela-eta lan-merkaturatzerik ezin dutenentzat eta beren oinarrizko beharrak asetzeko bestelako diru-sarrerarik ez dutenentzat ematen diren laguntzak; eta, azkenik, inbertsioetarako 3.594 milioi (% 4).

Gastos por naturaleza, según titularidad y territorio (% 1998) Gráfico **8** **Grafikoa** **Gastuak, izaeraren, titulartasunaren eta lurraldearen arabera (% 1998)**



El gasto total experimentó un crecimiento, en pesetas corrientes, del 9,4% respecto a 1997. El gasto corriente creció un 8,0%, las transferencias a familias un 8,5 % y la inversión incrementa respecto al año anterior 50,8%.

La distribución del gasto total, según la titularidad de los centros y entidades donde se realiza, es de 64% en la red pública y el restante 36% de los centros de titularidad privada.

Territorialmente las diferencias son significativas, el territorio de Álava tiene la red de centros públicos más potente, y absorben el 83% del gasto territorial destinado a la cobertura de los servicios sociales. En el extremo opuesto se sitúa el territorio de Gipuzkoa, en donde el gasto de la red pública es el 56% del total territorial. En Bizkaia el gasto total en la red de centros públicos representa el 62%.

En la composición del gasto, Álava tiene notables diferencias respecto a Bizkaia y Gipuzkoa. El 42% del gasto alavés se destina a cubrir los gastos de personal de la red de centros públicos, reduciéndose en Bizkaia y Gipuzkoa al 18 y 19% respectivamente. Las transferencias a familias desde entidades públicas suponen en Álava un 17% del gasto realizado en dichas entidades, mientras que en Bizkaia y Gipuzkoa, esta cifra alcanza el 48% y 29% respectivamente.

Según tipología, las mayores concentraciones del gasto se producen en los centros residenciales con el 36% del gasto total y el 47% del gasto corriente. Los servicios centrales realizan el 35% del gasto total, concentrando el 97% del gasto en transferencias a familias y el 16 % del gasto corriente. En tercer lugar, los Centros Ocupacionales y Especiales de Empleo realizan el 14% del gasto total y el 19 % del gasto corriente.

Guztizko gastuak % 9,4ko hazkundea izan du pezeta finkotan, 1997. urtearen aldean. Gastu arrunta % 8,0 hazi da, familietarako transferentziak % 8,5, eta, inbertsioa, berriz, % 50,8 gehitu da, aurreko urtearen aldean.

Guztizko gastua honela banatu da zentroen eta izakundeen titulartasunaren arabera: % 64 sare publikoan, eta gainerako % 36 titulartasun pribatuko zentroei dagokie.

Herrialdez herrialde, alde nabarmenak daude: Arabak dauka zentro publikoen sarerik indartsuena, eta gizarte--zerbitzuak ordaintzeko erabiltzen duen herrialde-gastu osoaren % 83 irensten dute. Beste muturrean Gipuzkoa dago, non sare publikoaren gastua herrialde horretako guztizko gastuaren % 56 baita. Bizkaian, azkenik, zentro publikoetako guztizko gastuak % 62 hartzen du.

Gastuaren osaerari dagokionez, Arabak alde handiak ditu Bizkaia eta Gipuzkoaren aldean: herrialde horretako gastuaren % 42 zentro publikoetako langileri gastuak ordaintzeko erabiltzen da; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, gastu hori % 18koa eta % 19koa baino ez da, hurrenez hurren. Erakunde publikoek familiei laguntzeko egiten dituzten transferentziak Araban egiten den gastuaren % 17 hartzen dute; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, kopuru hori % 48ra eta % 29ra iristen da, hurrenez hurren.

Zentro-motaren arabera, gastuaren portzentajerik handiena izakundeek eta zerbitzu tekniko nagusiek biltzen dute, haiek irensten baitute guztizko gastuaren % 36, gastu arruntaren % 47; familietarako transferentziek guztizko gastuaren % 97 hartzen dute, eta gastu arruntaren % 16. Hirugarren tokian, lanbide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak daude: guztizko gastuaren % 14 eta gastu arruntaren % 19.

Gastos según tipo de centro (% 1998) Gráfico **9** **Grafikoa** **Gastuak, zentro-motaren arabera (% 1998)**






Según el tipo de población atendida, a la población general se destina el 37% del gasto total de la C.A.E., básicamente vía programas de prestaciones económicas individualizadas no sujetas a contraprestación (Plan de Pobreza, LISMI, FBS, etc.), que suponen el 22% del gasto total de la C.A.E.; el gasto público en Ayuda a Domicilio que se incluye en este sector de población por atender a varios colectivos (ancianos, minusválidos y otros), con una cifra de 5.280 millones de pesetas representa el 6% del gasto total de la C.A.E. En segundo lugar, los centros que atienden a ancianos realizan el 30% del gasto total, representando el 39% del total de gasto corriente. A centros de minusválidos se destina el 24% del gasto total. Los demás sectores de población representan en conjunto el 8% del gasto total.

## 1.4. Financiación del Sistema

La financiación pública representa un 70% del total. Las principales fuentes de financiación del sistema de Servicios Sociales son las Diputaciones Forales de los tres Territorios Históricos, con el 41% del total. Los Ayuntamientos contribuyeron con un 13%. En tercer lugar, el Gobierno Vasco aportó el 12% del total, principalmente destinado a atender a las Ayudas de Emergencia Social y Salario Mínimo de Inserción.

Es preciso señalar, en cuanto a la financiación de las entidades, los ingresos procedentes de otras partidas ajenas al ámbito estudiado, que se incorporan como fondos propios de la entidad que los gestiona en la C.A.E. En este sentido, los fondos asignados a la administración central incluyen únicamente aquellas subvenciones claramente finalistas, como las destinadas a los Centros Especiales de Empleo por el INEM.

La financiación privada del Sistema fue del 30%; incluye además de la aportación neta de las instituciones priva-

Zaindutako biztanleri motaren arabera, biztanleria osoari guztizko gastuaren % 37 zuzentzen zaio, batez ere ordainik gabeko banakako laguntzen bidetik (Pobreziaren aurkako Plana, EGL, GOF, etab.), eta EAEko guztizko gastuaren % 22 hartzen du. Etxeko laguntzako gastu publikoa ere biztanleri arlo horretan talde asko (zaharrak, elbarriak eta bestelakoak) hartzegatik, eta EAEko guztizko gastuaren % 6 hartzen du -guztira 5.280 milioi-. Bigarren tokian, zaharrak zaintzen dituzten zentroek guztizko gastuaren % 30 burutzen dute, eta gastu arruntaren guztizkoaren % 39 hartzen dute. Elbarrien zentroetara, guztizko gastuaren % 24 zuzentzen da. Gainerako biztanleri arloek guztizko gastuaren % 8 hartzen dute.

## 1.4. Sistemaren finantzaketa

Finantzaketa publikoak guztizkoaren % 70 hartzen du. Gizarte-zerbitzuen sistemaren finantzaketa-iturri nagusiak hiru herrialde historikoetako foru-aldundiak dira, guztizkoaren % 41 jartzen baitute. Udalek guztizkoaren % 13rekin lagundu zuten. Hirugarren tokian, Eusko Jaurlaritzak guztizkoaren % 12 eman zuen, batez ere gizarte-larrialdietarako laguntzei eta gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerei erantzuteko.

Estatistika honi dagokion lurralde-esparrutik kanpo dauden erakundeetatik datozen funtsei dagokienez, adierazi beharra dago funts horiek EAEn kudeatzen dituzten izakundeen gizarte-sarreren atalean sartu ditugula. Ildo horretatik, Administrazio Zentralari esleitutako funtsek helburu jakin bat duten diru-laguntzak baino ez dituzte hartzen, hala nola, INEMek enplegu-zentro bereziei ematen dizkienak.

Sistemaren finantzaketa pribatua % 30ekoa izan zen; finantzaketa pribatu horretan sartzen dira, erakunde pri-

Financiación por origen, según titularidad y territorio (% 1998) — Gráfico 11 Grafikoa — **Finantzaketa, jatorriaren, titulartasunaren eta lurraldearen arabera (% 1998)**




das 8%, las familias, donde los usuarios y donaciones aportan el 15%, y otros, donde las ventas ajenas a prestación de servicio, aportan el 10%. Territorialmente es de nuevo Álava el que refleja una financiación pública más elevada (81%). Le sigue Bizkaia con un 70%. Por último Gipuzkoa, con un 63%, presenta el nivel de financiación pública más bajo, diferencia explicada nuevamente por la importancia que tienen en su red privada los Centros Especiales de Empleo.

batuen ekarpen garbiez gain (% 8), familiak (erabiltzaileek eta dohaintzek % 15 elkartzen dute) eta bestelakoak (zerbitzu-eskaintzaz besteko salmentek % 10 ekartzen dute). Herrialdez herrialde, Araba da berriro ere finantzaketa publikorik handiena duena, % 81. Haren atzetik, Bizkaia dago, % 70rekin. Azkenik, Gipuzkoak finantzaketa publikoaren mailarik baxuena ematen du, % 63. Alde hori berriro ere herrialde horretako sare pribatuan enplegu-zentro bereziek duten garrantziak azaltzen du.

Ingresos por naturaleza, según titularidad y territorio (% 1998) — Gráfico 12 Grafikoa — **Sarrerak, izaerari jarraiki, titulartasunaren eta lurraldearen arabera (% 1998)**



Atendiendo a la naturaleza de los ingresos, el 23% corresponden a ventas y prestaciones, el 50% a subvenciones; los ingresos por donaciones y cuestaciones representan el 2%, otros ingresos el 1% y los fondos propios aportados por las entidades añaden el restante 23% necesario para la financiación del gasto realizado. Este esquema de financiación es generalizable a grandes rasgos a los territorios de Bizkaia y Gipuzkoa, aunque en este último el grado de financiación por ventas y prestaciones es algo superior (33%), debido fundamentalmente a las ventas en centros laborales de minusválidos, con gran arraigo en Gipuzkoa, que representan el 19%, frente al 6% de Bizkaia y 5% de Alava. Los ingresos por prestaciones a los usuarios son similares en los tres territorios, con valores en torno al 13%, siendo máximo en Bizkaia (14%) y mínimo en Alava (11%).

La red de centros públicos se financia principalmente a través de las Diputaciones Forales (53%), Gobierno Vasco (16%) y Ayuntamientos (19%). Esta estructura de financiación de los centros públicos es generalizable a los tres territorios en cuanto a la participación de las Diputaciones Forales. El territorio alavés presenta, por su parte, una financiación municipal más elevada (23%) y una menor aportación del Gobierno Vasco (9%), frente al 21% alcanzado en Bizkaia.

Los centros públicos obtienen el 10% de sus ingresos a través de ventas y prestaciones, el resto de aportación privada no llega al 1%. En Álava y Gipuzkoa los ingresos por ventas y prestaciones en los centros públicos alcanzan el 10% y el 15% respectivamente, mientras en Bizkaia el porcentaje es menor (7%).

